


# BERRIGARA

9. zenbakia JARDUN Elkarte Bergara 1994, uztailak 22



## Udako freskagarriak



**BEHERAPENAK!!**



# egizabal

**BEHERAPENAK!!**



CARTUJANO



# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, ZUBIZARRETA,  
ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak**

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JAON BARIK**



Zerkaosketa, 17 behea  
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

**Ezagutu ezazu LILURAn  
benetako ongizatea**



**GURE MEDIKU ESPEZIALISTEkin**

## **ESTETIKA ESPEZIALIZATUA**

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorrena lortzeko.

Etor zaitetz Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara aste-gunetan edo 9.30etatik 14.00etara larunbatetan.

Zure edertasuna zure osasunaren pareko delako, biak era pertsonalizatuan zain-tzen ditugu.

LILURAn, zeure arazo pertsonala diagnostikatuko dizugu, doan.

**ABUZTUAN ZABALIK!!  
Asteleheneetik ostiralera (9.30-18.30)**



Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.  
Tfnoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.

☎ 76 08 19

**Zuzendaria:**

Gorka Elorza.

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkorobereibar.

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.

☎ 76 03 97

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Aizelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuña.

**Komikia eta marrazkiak:**

Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

**Portadako argazkia:**

Johny Frigo.

**Banaketa:**

Txantxangorri Taldea.

**Tirada:** 3.700 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:** BERRIGARA

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599


**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

### RUFINA OLASAGASTI

#### Udaleko Kultur Jestorea

- San Martinetako jaiei buruz zerbait aurreratu daiteke?

- San Martzial aurretik programa prestatzen hasi ginen eta dagoeneko programa gehiena osatuta dago. Nobedade gisa, igandean, irailaren 18an trebatutako txakurren erakustaldia izango da Seminarioan eta San Martin bezperako tanborradan ere berrikuntzak izango dira. Iaz bi tanborrada izan baziren, aurreten bat egingo da eta megafonia, kalean jarri beharrean, taldeen artean joango da.

- Beste ekitaldirik auzimarratu daiteke?

- San Martin bezperan Hermanas Ros orkestarekin dantzaldia



izango da, San Martin egunean Moises Aspiazuren oroimenezko bikoteen dantza askatuko txapelketa eta rock kontzertua, larunbatean Sebastopoleko titiriteroak eta krosa... Eta, horrez gain, margo lehiaketa, txirrindulari lasterketa eta abankargazko armekin plater tiraketa.

**"San Martinetan trebatutako txakurren erakustaldia izango da"**

## I T U R R I O N E T I K

### Aranzadi Ikastolak BBB eta UBirako baimena jasoko du

Gobernu Kontseiluak baimen administratiboa eman du Aranzadi Ikastolak BBBko lehen, bigarren, eta hirugarren mailak eta UBiko klaseak eman ditza. Aranzadi Ikastolak oraindik baimen hori ofizialki jaso ez duen arren, badirudi 1994-95 ikasturtean aipatutako kurtsoak eman ahal izango dituela. Dirulaguntzei dagokienean, berriz, lehen eta bigarren mailarako dirulaguntzak ziurtatuta daude, BBBko 3. maila erdixka subentzionatuko litzateke eta UBirako, berriz, ez luke dirurik jasoko Aranzadi Ikastolak.

## ESAN DUTE

"Garbi dago herritarren sektore haundi batek, berez abstentziozale izan gabe, paso egin duela azken hauteskundeetan. Ez bakarrik politikoentzat, gizartearentzat ere ondorio kaltegarriak ekar ditzake joera honek, gehiengoa den multzo soziala (euskararen aldekoa, Euskal Herriaren batasunaren aldekoa...) ez delako behar bezala ordezkaturia izango instituzioetan eta hauen kontrako jarrerak nagusituko liratekeelako Udal, Foru Aldundi eta Legebiltzarrean"

**IÑAXIO ARREGI**  
Aranzadi Ikastolako zuzendaria  
OÑATIKO KONTEJUPETIK ALDIZKARIA

"3. mailan daukadan esperientzia ikusita, uste dut Aloñak ekipoa indartu beharra daukala datorren urtean oso larri ibili nahi ez badu. Ez dago alde izugarririk, baina nabaritzen da 3. mailarako jauzia"

**RAMON AGIRREZABAL**  
Mondragon taldeko jokalaria ohia  
KONTEJUPETIK





**MISTERIOSO ASESINATO EN MANHATTAN**

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.  
Asteartea: 19.30  
(Ikuslearen eguna).



**MR. JONES**

Larunbata: 22.30.  
Astelehena: 17.00, 19.30,  
22.15.

**Zinea**

▼▼ **Woody Allen**ek idatzi eta zuzentzen duen 23. filma duzue hau. Azken honetan, **Mia Farrow** ezagutu aurretik, bere filmetako protagonista eta bere lagun izandakoaren **Diane Keaton**en partaidetza izan du. Senar-emazteak filmean, **Keaton** eta **Allen**ek jarrera ezberdinak azalduko dituzte auzokide baten emaztearen hilketaren aurrean. **Alan Alda** eta **Anjelica Hustonekin**.

▼▼ *Mr. Jones* (**Richard Gere**) odolberoa eta erakargarria da. Baina zenbaitetan behera etortzen da depresioak jota. "*Libbie*" **Bowen** doktorea (**Lena Olin**) bere mundua aztertzen ahalegintzen da eta pixkanaka pixkanaka *Mr. Jones*engan zerbait berezia sentituko du. Bion arteko harreman horrek medikuaren karrera zein bere pazientearen nortasun berezia kolokan jarriko ditu.

**Deiak**

▼ **1933**an jaiotakoan anaiarteko eguna irailaren 11n. Meza eta bazkaria (Lasa jatetxean). Izen-ematea Intxortan .

▼ **Gestorak** antolatuta, pre-soen egoera salatzeko Jaenera autobus gaur gaueko ordubatean Frontoitik.

▼ **Ikastaroa.** "Artxibategietan ikerketak egiteko era" bihar 10etan Errekalde Jauregian.

**Ogia**

▼ **Igandea 24:** Bolintxo.  
▼ **Astelehena 25:** Mizpildi.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 23:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Igandea 24:** Puy/Morales.
- ▼ **Astelehena 25:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Asteartea 26:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 27:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Osteguna 28:** Mozos/Morales.
- ▼ **Ostirala 29:** Puy/Corcuera.

**ZUBIAURRE**  
aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.  
HORMA ARMAIRUAK.  
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.  
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.  
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**BELENGUA**

**Taberna**

**Pintxoak, kafeak...**

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

- *Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.*
- *Masajeak, solariuma, perikura, estetika...*

**JOSEFINA**

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27



# SANTIAUAK

## Ostiraletik asteartera bitartean jaiak Basalgon

**Astebukaera** hone-tan zehar Basalgo auzoko Santiago jaiak ospatuko dira. Bertako jai Batzordeak programa zabala osatu du gaurtik asteartera bitartean. Gaur ostirala, arratsaldeko 7etan, jaien hasiera izango da kanpai jotze eta etxaflero jaurtiketarekin; 8etan ohizko makala jasoko da eta gaueko 9etarako, berriz, afari herrikoa iragarri da.

Eta bihar larunbata, eguerdiko ordubatean, auzoko hildakoen omenezko Meza Santua izango da eta ordubi 1'erdietan Zarra-Xapre soinu-joleek alaitutako auzotarren bazkaria.

Igandean, goizeko 12etan Meza, orduerdi beranduago mendi bizikletako II. trabesia eta eguerdiko ordubatean umeendako jolasak izango dira. Arratsaldeko 4retan herri mailako plater tiraketa jokatu da eta gaueko 10'erdietan ber-



Sebastian Lizaso bertsotan arituko da igande gauean. Astelehen arratsaldean, berriz, dantza txapelketa iragarri da.

tso jaialdia Sebastian Lizaso, Solozabal, Jesus M. Irazu eta Ion Enbeita bertsolarien partaidetzarekin. Gai-jartzaile Gabixola arituko da eta tarteka txiste kontalari baten saioa eskeiniko da. Igande osoan zehar Zarra-Xapre soinu-joleak arituko dira


Santiago eguna ospatuko da astelehenean, uz-tailak 25. Goizeko 11etan Meza Nagusia egongo da, 12etan alebin eta gazte-txoan XIII. Basalgoko Txirindulari Igoera eta orduerdi beranduago pelota partiduak jokatu dira. Arratsaldean, 6etan, IV. Dantza Txapelketa 8 bikoteren partaidetzarekin eta egun guztian zehar Zarra-Xapre soinu-joleak izango dira Basalgon.

Asteartean, Meza Santua 12'erdietan eta, meza ostean, Basalgora hurbiltzen direnentzat *luncha* banatuko da.



### Igande arratsaldean plater tiraketa

## BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



**"Conoce usted el Derecho?"**

Euskadiko Kutxan (Kaja Laboralean) kreditu pertsonal bat eskatu eta orain bi aste firmatzera joandakoan Eduardo Clausen Zubiria korredore jaunak ezer baino lehen galde-tutakoa da. Euskadiko Kutxan paperak euskaraz egin nahi genituela esanda geneukan eta han beren aldetik problemarik ez zegoela esanda. (Korredorea notarioen antzeko kargu bat da eta ez da, beraz, Euskadiko Kutxako langilea).

"Conoce usted el Derecho?" korredore jaunak. Gu harrituta. "Que si conoce usted el Derecho, que si es usted abogado". "Abogado, no". "Pues yo si, y ¿sabe usted que yo no tengo obligación de saber euskara? ¿Y sabe usted que el castellano ha logrado por medio de su utilización durante siglos desde el Derecho Romano, un rigor que el euskera no posee, y por lo tanto, el euskera no es apto para tramitar una documentación de tal nivel". Guk, txundituta, ez genuela exijitzen berak euskeraz jakiterik baina guk paperak euskaraz egin nahi genituela eta hori itzultzaile batekin konpon zitekeela; bestalde, jakin bagenekiel denbora asko ez zela Bergarako Udalak eta Euskadiko Kutxak euskaraz egin dituztela gurea baino dirutza dexentez haundiagoko kreditu baten paperak; beraz ez botatzeko euskarari erurrik.

Eta esan zigun ez dela berea gu minoria izatearen errua: "Yo no tengo la culpa de que ustedes sean 400.000 y nosotros seamos 2.000.000"; eta 5.000 pta.koa poltsikotik ateraz galdetu zigun "ea halakorik ez genuen hartzen erdaraz egoteagatik; eta euskararen edo gure inkapazidadea demostratzeko azterketa pasatu zigun: "A ver, ¿como se diría en euskera...?". Eta gu, firma bat bota eta segituan kanpoan izango ginelakoan...

Badago liburu bat, Lengua y Pueblo, Jose Maria Sanchez Carrión-ena, honako hau dio-

ena: "...el triunfo del poder radica en su capacidad de (...) desplazar hacia nosotros el complejo de culpa que le pertenece a él". Eta aurrerago: "...la ofensa no es sino el medio más solapado de defensa. Pero el deseo de defender algo surge del miedo a perder algo previamente acumulado, pues la acumulación supone a su vez miedo, temor".

Jaun honek bere ezina, bere gabezia, gureganako prepotentzia, gureganako harro-keria bihurtu nahi du. Jaun hori beldur da euskarak aurrera eginez gero, bihar edo etzi gaur duen boterea ez duela izango, bihar edo etzi bere lana egiteko itzultzailea beharko duela. Eta horren errua euskaldunoi eta euskarari botatzen dio.

Bada, jakin dezala jaun horrek euskaldunok ez dugula botererik galtzeko beldurrik. Menderik mende zapaldu gaituzte guk geuk geure hizkuntza gorrotatzeraino, euskaldun jaio izanaz lotsatzeraino, geure izateari uko egin nahi izateraino (1). Baina ez gaude prest beti hala izan dadin. Ez dugu guk jasandakorik inorentzat nahi, euskaraz ikasi nahi ez duenak ez dezala ikasi, baina garantizatu dakigula guri zerbitzu publikoa euskaraz. Ez dugu pribilegiarik eskatzen, eskubide bat bermatzea bakarrik; eta errespetu apur bat.

Eta jakin dezala jaun horrek, nahita edo nahi gabe, iritsiko zaiola umilago ibiltzeko unea: orain 25-30 urte ikastolak sortzeko aha-legendetan jardun zuten haiek hamaikaxo traba eta oztopo gaindituz aurrera egin zuten moduan guk ere aurrera egingo dugula. Jakin dezala gaur 6 hilabete behin edo urtean behin tokatzen bazaio euskaraz egin nahi duen bat, bihar hilean behin eta etzi astean behin egokituko zaiola. Eta orduan konturatuko da arazoa bera dela eta ez euskara eta euskaldunak.

Amaitzeko, bi dei luzatu nahi ditugu: Lehenengoa, Bergarako euskaldun guztioi, geure eskubideak defenda ditzagun,

zerbitzu publikoetan euskara erabiliz. Bigarrena, Euskadiko Kutxari. Exijitzen diogu egin ditzala egin beharreko gestioak era horretako egoerarik berriz ez gertatzeko, badakigu eta lehenago ere jaun horrek entitate horretako bezero euskaldun batzuekin antzeko jokabideak izan dituela.

(1) EHUNDAKA DIRA EUSKARAK MENDEETAN ZEHAJASAN DUEN ZAPALKUNTZA HORI ADIERAZTEN DUTEN TESTIGANTZAK. KOLDO ELEIZALDE BERGARARRAREN HITZAK DIRA: "DESDE SUS PRIMEROS AÑOS SE ENSEÑA A DESPRECIAR SU IDIOMA NATIVO Y A ODIARLO A CAUSA DE LOS BARBAROS CASTIGOS CORPORALES QUE LE HAYAN VALIDO SU CONOCIMIENTO Y USO".

BITORIANO GANDIAGA IDAZLEAREN TESTIGANTZA DA ONDORENGOA: "NIK BADAKIT GURE GURASOEN LARRIA. GERNIKAN BERTAN BEHAR BAZUTEN ABOKATUAGAZ BERBA EGIN, EDO JUEZAGAZ, EDO EDOZEIN BULEGOTAN -MEDIKU EUSKALDUNA GENUEN ZORIONEZ- IKARAGARRI SUFRITU ZUTEN ETA ESAN BEHARRA DAGO, LOTSA, UMLAZIOA, HIZKUNTZA PROBLEMATIK".

**AMAIA MADINABEITIA ETA ESTEPAN PLAZAOLA**

**Zuzenketa**

Aurreko asteko BERRIGARAn, "Autopistaren txanponekin Deba erreka berreskuratu" izenburuko karta EKI talde ekologistarena zen eta ez EGUZKlrena, bertan sinatuta agertzen zen moduan. BERRIGARAKO erredakzioak barkamenak eskatu nahi dizkie bi talde ekologistei huts honengatik.

**Oporretara!!**

Eskuetan daukazuen ale hau abuztu aurreko azkena duzue. Oporretara goaz eta, beraz, BERRIGARAn hurrengo alea irailaren 8ra arte ez da kaleratuko. Ondo pasau baka-ziñoetan.

**Tiira biraka**



JULIAN EZENARRO



◆ **Akanpada**

JARDUN Elkarteko Gazte Taldeak, beste herrietako gazte taldeekin batera, gazte akanpada antolatu du Degurixan irailaren 9tik 11ra bitartean. Argibide gehiago JARDUN Elkartean (Masterreka 13, 76 08 19 telefonoa).

◆ **Istripua**

Maria Pilar L.U. 67 urteko bergarra zaurituta gertatu zen astearte eguerdian Ibargarain izandako istripu batetan. Opel Astra kotxe batek bizikletan zihoan Maria Pilar L.U. harrapatu zuen. Ondorioz, eskuin zangoko tibia hautsita dauka Maria Pilarrek.

◆ **Zozketa**

Bedelkar Bergarako Dendarien Elkarteak eginiko zozketan, 2. sariko boletoaren jabea agertzeke dago. Itxura batean antzuolar bati eman zitzaion boleto hori Izadi belardendan.

◆ **Presoak**

Gestorek, Maite Guridi eta Luis Etxeberria preso bergararrek jasaten duten egoera eta epaitegietan ezarritako neurriak betetzen ez direla salatu dute.

# Hirugarren munduko herriei laguntasuna

*Euskalerritik etorritako gazteak Elosun bilduko dira gaia aztertzeko*

**Abuztuaren 1etik 15era bitartean Elosuko parroki etxean Euskalerritik etorritako 25 gazte lan taldean arituko dira hirugarren munduko herrialdeei laguntasuna eskaintzeko aukerak aztertzen.**

Proiektuaren bultzatzaileek, Unai Ziarsolo eta Mikel Gantxegi bergararrek, 15 egunetan egingo dutena azaldu digute: *"Hasierako ideia edozein lanetan aritzea zen, hortik dirua atera eta 3. munduan proiektu bat egiteko. 15 egunetan hizlari batzuk etorriko dira eta eurek azalduko dizkigute proiektu posibleak. Baina lana bilatzeko arazo ugari izan ditugu eta azkenean, baserrietan belarra biltzen etab... lan egingo dugun arren ez dago dirua ateratzerik. Beraz kontzientziazio lanarekin konformatu beharko gara".*

Gazte hauek goizez lan egingo dute eta arratsaldeetan, beste aktibitate batzuren artean, hitzaldiak izango dituzte. Hitzaldien ordua eta eguna zehaztuta ez dagoen arren Emilio Rodríguezek




Mikel Gantxegi eta Unai Ziarsolo proiektuaren bultzatzaileak.

Chiapasi buruz hitz egingo du, Carlos Burlada misiolariak Afrikan izan duen esperientzia kontatuko du eta Imanol Larrea antzuolarrak Guatemalari buruz hitz egingo du.

Elosuako egonaldia antolatzeko bi gazteek aipatu digutenez zailtasunak izan dituzte, baina Xabier Zubizarreta parrokoari eskerrak eman nahi

dizkiote. Gazteek 15 egunak pasatzeko 5 mila pzta. ordaindu behar izan dituzte: *"Diputazioetara eta Bergarako Udalera jo dugu diru eske, baina erregistratuta ez gaudenez ez digute dirurik eman. Jatekoa inguruko baserrietan eta elizetxea pintatzeagatik emango digutenarekin lortzeko asmoa dugu, ikusiko dugu..."*.

**Goizez lan egin eta arratsaldez hitzaldiak etabarrak izango dituzte**



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

**BERGARESA  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, BERGARA  
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77



## ◆ Orkestaren kontzertua

Denboraldiari agurra emateko, Musika Eskolako Orkestak kontzertua eskeiniko du bihar larunbata gaueko 11etan Espoloian. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean honako lanak eskeiniko ditu: *Marcha Radetzky* (J. Strauss), *Sinfonia para gran orquesta* (*Allegro*, J.C. Arriaga), *Miss Saigón* (musikala, C.M. Schomberg) eta *La torre del oro* (preludio sinfonikoa, G. Giménez). Denboraldi amaierako kontzertuetan ohitura den bezala, kontzertu amaieran sorpresatxo bat izango da.

## ◆ Kexak Ginekolojia zerbitzuarekin

Anbulategiko Ginekolojia zerbitzurako txanda hartzeko momentu honetan, gutxienez, 6 hilabeteko epea itxaron behar denez, arazo hau konpondu nahi dutenek ambulategitik pasa daitezela eskatzen du emakumeentzako ekintzak antolatzen dituen taldeak. Anbulategian kexa orri bat betetzeko aukera izango dute eta, gauzak errezteko, orri hori betetzeko modelo izango da bertan. Orri horiek Errezeptzioan eskuratu daitezke.



Osintxuko ohizko txekor hilketa larunbat goizean egingo da.

## Osintxuko Kofraixak abuztuan

*Abuztuaren 26, 27 eta 28an hainbat ekitaldi Osintxun*

Osintxuko Jai Batzordeak osatu du dagoeneko aurtengo Kofraixetako programa. Jaiak abuztuaren 26tik 28ra bitartean izango dira eta honako ekitaldi hauek iragarri dira: ostiralean, hilak 26, arratsaldeko 8etan jaiei hasiera emango zaie, 10.30etan bertso jaialdia egongo da Sebastian Lizaso, Angel Mari Peñagarikano, Igor Elorza, Ion Sarasua eta Zeberiorekin (Maite Aristegi gai jartzaile) eta, bertso-jaialdiaren ondoren Arno taldearekin dantzaldia.

Larunbatean, abuztuak 27,

8etan txekor hilketa, 11etan umeentzako jolasak, 12etan Irabango kros itzulia, arratsaldeko 5etan auto-krosa eta gauez, Ariizgoti taldeak alaitutako dantzaldia.

Bukatzeko, igandean, eguerdiko 12etan Herri Meza izango da eta meza ostean karidadea banatuko da. 12.45etan umeentzat zezen-txikiak, poniak, oilarrak eta basurdeak egongo dira eta 5etan pelota partiduak jokatuko dira Osintxuko frontoian. Gaueko rock kontzertuan Lin Ton Taun, Amorruru eta Bost axola taldeak arituko dira.

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

# Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A  
U  
T  
O  
A  
K

# Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

# Garnish

## Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

antzinako gauzak  
dekoratzeko ideiak

# Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98



# Elosuko eskolak eta frontoia 50 urte

*Abuztuaren 20an hainbat ekitaldi urtemuga ospatzeko*

**Elosuko auzoak jai eguna izango du datorren abuztuaren 20an, egun horretan betetzen baitira 50 urte auzo eskola eta frontoia egin zirenetik. Egun horretan bazkaria, pelota partiduak eta beste hainbat ekitaldi burutuko dira.**

1.944an Elosuan eskola bat behar zela eta auzoko 29 baserri elkartu ziren eskola eta frontoia egiteko. Familia bakoitzak 1944ko urtarriletik irailera arte, orduko 1.800 pza. ordaindu behar izan zituen. Laguntza ofizialei dagokienez Bergarako Udalak 7.900 pza, Aurrezki Kutxak 5.000 pza, Diputazioak 1.500 pza eta Azkoitiko Udalak 1.000 pza jarri zituzten.

Obrak auzokideek egin zituzten eta dokumentu zaharretan ikus daitekeenez auzokide bakoitzak zenbat ordu egin zuten lan zehazten zuten. Halaber nork jarri zuten idiak, gurdiak, astoak, baserri bakoitzak jarritako mutilak argi eta garbi agertzen dira Xabier Zubizarreta Bergarako parrokoak, erakutsi dizkigun agirietan. Zubizarretak adierazi digunez, "eskola egin aurretik sakristauak ematen zituen klaseak eta orduan irakasle titulatu izatea, haurrei gaztelera ondo erakusteko garrantzitsua zen eta auzoari indarra ematen zion. Inaugura-

*zio egunean andereñoari 30 pztako opari bat egin zioten".*

Orduan eskolaren eta frontoiaren inaugurazioak izan zuen garrantziaz konturatzeko, auzokideek 1.000 programa banatu zituzten inaugarazio eguneko egitarauarekin. Bertan Atano III eta Leonardok Txara eta Unamunoren aurka jokatu zuten pelota partidua izan zen ekitaldirik garrantzitsuenak. Halere bertsolariak, sermoia eta Aizpurutxotik ekarritako 63 laguntzako bazkaria ere izan ziren. Eskola egiten parte hartu ez zuten auzokideentzat euren haurrak eskolan sartzeko 3.227 pza. ko kuota jarri zuten.

**6tik 14 urtera bitarteko 44 haur**

Eskolan 6tik 14 urtera bitarteko 44 haur inguru hasi ziren eta zabalik iraun zuen bitartean 6 andereño ezberdin izan ziren. Frontoia oraindik funtzionatzen jarraitzen duen arren, eskola 1972-an itxi zen eta orain auzokoentzako eikarte moduan dago jarrita.

Eskolak eta frontoia 50 urte betetzen dutela eta, datorren abuztuaren 20an jai eguna antolatu da Elosuan. Ekitaldirik nagusiena eskolan ikasle izandakoek, eskola eta

frontoia egiten ari izan zirenek eta gaurko elkarreko bazkideek egingo duten bazkari herrikoa izango da. Halaber eskolan irakasle izandakoak omenduko dituzte.

**Elosuko auzo eskolako irakasle izandakoak omenduko dituzte abuztuaren 20an**



Orain dela 50 urte, Elosuko frontoia inauguratu zeneko eguna. Aragzkian, Unamuno eta Txara pelotari bergararrak.

**ETXAGI**

Jatetxea  
Afariak-Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA**

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**KIZKUR**



**Ileapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



# Ekologia

## Ekologia etxean

**- Zer egin dezakegu gure etxeetan ingurugiroa babesteko?**

- Orain dela gutxirarte zabor guztia dena batera botatzen genuen, aldiz orain Mankomunitatean bilketa selektiboa egiten da: beira edo kristala, papera, pilak eta trasto handiak aparte jasotzen dira, gorde edo eta birziklatzeko. Oraindik zabor poltsetan gauza gehiegi botatzen dugu; gure ohitura kontsumistak aldatuz joan behar dugu: zaborrak etxeetan banatu egin behar ditugu, gero kontenedore berezietara bota ahal izateko. Paper birziklatu erabiltzea ere eskatzen da, berriro erabili daitezkeen gauzekin parekatuta dauden produktuak erosi, latak eta plastikozko azalak ez erabili eta ez ezazu inolako aerosolik erabili.

**- Ura bukatzen ari den baliabidea da. Nola gutxitu daiteke kontsumoa?**

- Tanttaka dauden txorroak konpondu, ur gutxiko irteerak jarri, dutxatu bainatu beharrean, komuneko zister-

nan adreilu edo antzerako zerbait sartu (ur gutxiago jauzteko), hortzak garbitzerakoan ez laga txorroa zabalik, garbigailua eta ontzigarbigailua ondo beteta erabili eta kontutan izan uraren kontagailua.

**- Argindarrari buruz beste horrenbeste esan daiteke?**

- Bai, argindarraren kontsumoa gutxitzen sa-



**AITOR ARANZABAL**  
(*ekologista*)

iatu behar dugu. Nola? Ez alferrik galdu eta egunean zehar argi naturala erabili, kontsumo gutxiko elektragailuak erabili, ate eta leihoetatik ez dadila beroa joan edo hotza sartu, argia eta tresnak deskonektatu ez badituzu erabili behar edota asko

irauten eta energia aurrezten duten bonbilak erabili.

**- Garbitasunerako produktuekin arriskurik badago?**

- Produktu gehienak ingurugirorako oso kaltegarriak dira. Onena beharrezkoak bakarrik erostea da eta gainera merkatuan hain kaltegarriak ez diren zenbait produktu (fosfato gabe-koak etabar) daude; erabili izatze. Era berean, jaboia, bikarbonatoa, ozpina eta limoia ere erabili daitezke garbiketarako. Azkenik, kantidadetara gutxi erabili eta ambientadore kimikoen ordeztasun naturalak erabiltzea gomendatuko nuke.

**- Elikadurak zeresanik izango du baita...**

- Gure baserriarren produktuak erosi ezkerok, hauen etorkizuna eta ingurugiroaren babesa bultzatzen dugu. Nekazaritza biologikoan ez da produktu kimiko sintetikorik erabiltzen, beraz, gure osasunerako hobekak dira eta ingurugiroa ez dute kaltetzen. Merezki du pixka bat gehiago ordaindu eta osasunean, ongi izatean eta ingurugiroaren babesean irabaztea. Bizi kalitatea eta ongizatea, ibai garbia, baso naturala edota inguru txukuna edukitzearekin parekatzen dugu.

**"Ura eta argindarra aurrezteak eragina izango du etorkizuneko bizi kalitatean eta ongizatean"**



Tanttaka dauden txorroak konpontzearekin ura aurreztu dezakegu.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

**Tomas Gezalaga**

ANTZUOLA BERGARA

•Zoruen kuxilatu eta barnizaketa•

**Usoa Pub**

Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1

**Aldoka Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA






# TRIKITIXA ESKOLA

## SOINUA eta PANDEROA

### DATORREN IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA

- **KURTSO HASIERA: 1994ko irailaren 21a**
- **KURTSO AMAIERA: 1995eko ekainaren 10a**
- **MATRIKULA EPEA: 1994ko irailaren 9a**
- **ORDUTEGIA:**
  - **Asteazkenetan: 16.00-20.00**
  - **Larunbatetan: 9.00-14.00**
- **KUOTA:**
  - **1.800 pzta. PANDEROA**
  - **2.500 pzta. SOINUA**





# Iparramerikako gailurrean

## McKINLEY

**Mendizale amorratua, Ramon Maria Loiti angiozartarrak, beste lau lagunekin batera, Alaskako McKinley (6.193 m.) edo Denali ("Haundia" bertako indio eta eskimalen hizkuntzan) mendiko gailurra zapaldu zuen ekainaren 8an. Akonkaguan, Indiako Tibetean, Perun, Pakistanen edo Alpeetan ibili ondoren, Iparramerikako gailurra lortu du.**

## Ramon Maria Loiti

ezagutzen nuen bakarrik eta esan behar da Felipe gure artean beste bat gehiago zela.

- Nola antolatu zen bidaia?

- Maitzaren 21ean irteten ginen Euskal Herrietik eta Madrilen abioia hartu ondoren, Washington, Seattle eta Anchorage (180.000 bizilagun, Alas-

kako kapitala) bitarteko ibilbidea bete genuen, guztira, abioian, 16 ordu eginaz. Alaskak 1.500.000 Km<sup>2</sup> eta 400.000 biztanle ditu eta gogoratu behar da Estatu Batuek 7,2 milioi dolarren truke Errusiari erosi ziotela 1867an. 1959tik, Estatu Batuetako 49. estatu federala da.

Anchorage erostekak

egin genituen egun batez, ez baitu merezi janaria hemendik eramatea. Batetik, Estatu Batuetan ez dute janaririk sartzen uzten eta bestetik, oso aukera zabala dago elikagai liofilizatuei dagokienean. Gainera, hemengoekin konparatuz, prezio eta kalitate hobeak dute. Anchorage 220 bat Km.ra

- Zelan sortu zitzaizun McKinleyra joateko aukera?

- Bueno, Felipe Juaristi, Martin Zabaleta eta Xabier Errok "Mendiak eta Herriak" izeneko agentziarekin mendi irteerak antolatzen dituzte, eta diru kopuru baten truke, bidaiak prestatzen dizkizute, beti ere lagun kopuru minimo bat baldin bada. Azkenean 7 lagun bildu eta aurrera egin genuen: Isaias Peres (Orensekoa), Luis Medina eta Alberto Pérez (Iruñea), Mikel Irure (Zestoia), Ramon Agirre (Aitaun), Felipe Uriarte bera (Hondarribia) eta ni neu. Nik Ramon Agirre



Ezkerretik eskumara: Felipe Uriarte, Isaias Peres, Mikel Irure, Alberto Pérez, Luis Medina eta Ramon Agirre. Makurtuta, Ramon Maria Loiti. Atzean, Foraker mendia (5.303 m).

### BOLINTXO

#### Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz 4 EIBAR  
☎ 79 63 42 ARRASATE

### LONBIDE

#### OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA





Kanpo basetik (2.200 m.) McKinleyko gailurra. Bertatik 4.000 m.ko desnibela dago.

zegoen Talkeetna herrira autobusez jo genuen. Herri horretatik McKinley 100 Km.ra besterik ez dago baina dena basoa eta erreka betetik; onena bertako K-2 konpainiarekin McKinleyraino abionetaz joatea da. Egutero 30 bat lagun sartu eta beste 30 irtetzen dira menditik eta abionetak South Fork-en (2.200 m.), lehen glaziarrean, laga gintuen. Hortik gora biderik arruntena jarraitu genuen, hegoaldeetik.

**- Nolakoa izan zen iguera?**

- Lehen egunetik gailur artean enkordatuta ibili beharra geneukan eta, horrez gain, bakoitzak 50 bat Kg. eraman behar izan zituen (25 bizkarrean eta beste 25 bat trineoan). Aklimatatzeko, egun bakoitzeko, egun bakoitzeko kanpo base batetik hurrengorako ibilbidea betetzen genuen. Maizatzen 30ean 4.430 m.ra dagoen kanpo basera iritsi ginen, gailurra egiteko toki aproposa baita eta handik 5.000 m.ra igo eta berriz ere itzuli giten gi-

nen aklimatazioarekin jarraitzeko; handik bi egunera, 5.300 m.ra (5. kanpamendura) materiala eraman eta berriz buelta egin genuen. Elurragatik bi egun dendatik irtetzeke igaro ondoren, ekainaren 7an 5. kanpamenduan lo egin genuen, hurrengo egunean gailurra lortzeko asmoz. Ekainaren 8an goizeko 6etan gosaria prestatu eta goizeko 9etan irtetzeko prest geunden baina

gunek lortu genuen gailurrera iristea eta bi naurrek, hotza eta nekeagatik, ezin izan zuten gutxiagatik goraino iritsi. Gailurrean 10 bat minutu egin genituen eta goizeko ordubi terdietan 5. kanpamenduan geunden. Gaua bertan igaro eta hurrengo egunetik, egunetik egun, kanpamentu bat jeitsi eta ekainaren 11n Talkeetnara iritsi ginen. Ondoren, Kenaiko penintsulara eta salmoien in-

**- Zer nolako eguraldia izan zenuten?**

- McKinleyra igotzeko sasoirik onena apirilaren azkenetik uztaile bitartean izaten da eta egokiena, berriz, maizatzen erditik uztaile hasierara arte. Eguraldia nahiko seguroa da, zuloak (grietak) estalita daude eta glaziar gainean ibiltzen zara. Orain han ez dago gaurik baina eguzkia ezkutatzen denean -25°Cko temperatura egon daiteke; guk 5°C eta -25°C bitarteko temperaturak izan ditugu baina gailurrean geundenean termometroak -28°C markatzen bazituen ere, haizearen abiadura 40-50 Km./ordukoa zen eta "sentsazio termikoa" delako efektuaren eraginez, -43 °C inguru izango ziren. Baldintza horiek, presio atmosferikoa eta Polo ondoan dagoela kontutan hartuz, Himalayako 7.500 m.ko mendi batekin parekatu daiteke McKinley; Everest baino 3.860 Km. iparralderago dago eta "munduko mendirik txarrena" deitzen diote.

**- Anekdotarik?**

## "Hango baldintzak kontutan hartuz, Himalayako 7.500 m.ko mendi batekin parekatu daiteke McKinley"

gauean sekulako haizeak izan ziren eta 12ak arte irten edo ez irtetzeko zalantzan izan ginen. Ordubietan gorantz atera eta gaueko 10etan lortu genuen gailurra. Kuriositate bezala, Alaskan orain ez dago gaurik eta ordu horretan kriston eguzkia eta bisibildade haundia zegoen. Bost la-

dustriara dedikatzen den herri batera bisitak egin genituen. Harrigarria zen: lana amaitutakoan, bertako bizilagunek 5 eta 10 Kg. bitarteko salmoiak ateratzen zituzten portuan bertan. Matuska glaziarraren amaiera ere ikusi genuen... eta ekainaren 16an etxera bueltatu.

- Inguru hura "Parque Nacional" izendatuta dago eta bertako poliziek asko zaintzen dute ingurugiroaren errespetua. Igoeran zehar, grietetan, komunak daude eta egin behar dena bertan egin behar da derrigorrez, aire librean, edo bestela poltsak horra bota. Bestela, isun bat jaso dezakezu.



# Izozkiak

## Udako freskagarriak

**Uda beti dago lotuta eguraldi onarekin eta horrekin batera hainbat tokitan ikusten da jendea izozki batekin eskuen artean. Mota guztietako izozkiak ikus daitezke bai itxura bai kolore aldetik. Halere asko dira lehengo izozkigileen produktuak, Lopez anaiena edo Harindondinena faltan botatzen dutenak. Baina nahiz betiko izozkiak nahiz berriak udarekin batera izozkien ordua heltzen da.**

**H**iztegiek diotenez izozkia esnea edo nata, azukrea, arraultza eta beste osagai batzuk, izoztu ondoren egindako postre bat da. Hiztegiari jarraituz izozkia, nola ez, Estatu Batuetan hasi zen industrialki saltzen eta batez ere Estatu Espainiarrean eta Italian izan du arrakastarik gehiena.

Nor ez da joan noizbait Donostiara edo beste hiribururen batera zerbait egitera eta etxera etortzeko ordua heltzen denean italiar edo valentziar heladerietara joan?. Bergaran ere lehen bazeuden etxean egindako izozkiak saltzen zituztenak, baina orain gutxi batzuk geratzen dira bakarrik. Gure herrian jaten ditugun izozki gehienak fabriketan egindakoak baitira. Camy, Avidesa, Menorquina, Frigo dira gure artean markarik ezagunenak eta uda heltzen denean, eguzki izpien berotasuna arintzeko asmoz, bai nagusi bai haurrek gogo handiz hartzen dute izozkia. Halere

lehengo kukurutxoek, gurdiek kotxeei paso eman dieten bezala, Burmarflash edo Draculei eman diete paso. Urtero, gainera, izozkiak egiten dituzten fabrikak uda heltzen denean izozki berriak ateratzen dituzte. Aurtentz Minniak, Barbyak, Pantera Rosa, Micky Mou-

seak dira izozkien artean izarririk distiratsuenak. Halere, oraindik kukurutxoek euren arrakasta mantentzen dute izozki zaleen artean.

Izozkiak saltzen diren punturik aintzinakoena, gure herrian behintzat, Harindondin da. Bertan 20 urte daraman Maria

Angeles Martinezekin izan gara izozkiei buruz hitz egiteko. "Izozki kontuetan asko aldatu da. Lehen nire aitak egiten zituen, baina orain guztia fabrikatik ekartzen dugu. Esnea, arraultzak eta kontserbazko frutak ere botatzen zien. Poloak ere berak etxean egiten zituen. Prozesu guztia naturala zen. Lehengo izozkiak jendeari gehiago gustatzen zitzaizkion eta oraindik bada jendea lehengo izozkiak eskatzen dizkiguna".

Baina duela 15 urte, Maria Angelesen aitak, Victoriano Martinezek, lana utzi ondoren, etxean egindako izozkiak egiteari utzi zioten. "Gaur egun asko aldatu da izozkiaren produkzioa. Lehen guztia zen naturala, baina orain beste produktu batzuk erabiltzen dira. Gustoei dago kienez izozkiaren prezioak zerikusi handia du. Haurrek izotzez egindako poloak eskatzen diz-



Aukerak ugariak izaten dira. Urtero-urtero izozki berriak ateratzen dituzte marka ezagunenek.





Irene Odriozolak, nata eta merengea nahasten ditu izozkia egiteko.

*kidate, merkeagoak baitira eta nagusiek, aldiz, kukurutxoak edo garestiakoak eskatzen dizkirate*" esan digu Martinezek.

Izozkigileak euren produktuak errazago saltzeko poloei itxura ezberdinak ematen dizkiete eta Martinezek azaldu digunez, figuradun poloek haur txikien artean dute arrakasta. Gustoei dago-kienez helduei bainilazko izozkiak gustatzen zaizkie gehienbat eta haurrei, berriz, limoizkoak, txokolatzekoak, marrubizkoak...

**"Izozkiak jateko orduan ez dago adinik"**

Izozkiak jateko beste toki aproposa igerilekuak dira eta bertan dagoen tabernaren arduradunarekin, Valen Kalboetxeagarekin, izan gara. Azken honi egun eguzkitsu batean zenbat izozki saltzen dituen galdetu diogu. *"Zenbat konkretuki ezin*

*dizut esan, baina asko. Arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean beti dugu barra beteta. Halere duela hiru urtetik hona asko bajatu da. Haurrek izozkia erosi baino lehen gustokoagoa dute pipak edo bestelako txutxeriak eros-*

*tea. Halere haurrek izoztezko poloak nahiago dituzte eta nagusiek, aldiz, garestiakoak. Haurrek badakite zer nahi duten: lehen Miko etxearen produktuak saltzen genituen eta Miko Lapiz zen salduena, oraindik*

*ere eskatzen digute. Orain berriz Frigo dugu eta aurten atera duten Minniak dira gehien eskatzen dizkigutenak".*

Adinari dagokionez Kalboetxeagak adierazi digunez helduek, haurrek baino diru gehiago gastatzen dute izozkiak erosten. *"Izozkietan denetarik dago, merkeenak 50pzta balio ditu eta garestienak 200pzta. Horrenbeste daude askotan izenak ikasten ere zailtasunak ditugula!"*.

Felisa Amezkoak Mxtiategin du bere postua eta honek aitortu digunez, helduak dira izozki garestiak eskatzen dituztenak. 3 urte daramatza izozkiak saltzen eta bere ustez lehen bezala saltzen dira: *"Izozkiak gehienbat udan saltzen dira, baina neguan ere saltzen dira. Batzuk obitura dute egunero izozki bat jateko, edurra egin arren, ez diote uko egiten eguneroko poloari edo beladuari"*.

**Fabrikako izozkiak nagusi**

Izozkiak jateko beste toki aproposa gozotegiak dira. Herriko gozotegietan galdetu ondoren, etxean izozkia egiteko ohiturari Mujikan eusten diote. Alzelai, Reizabal eta Larrañagan duela gutxira arte egin izan dituzte, baina Larrañagan adierazi diguten bezala, etxean egindakoak kanpokoak baino apreziatuagoak diren arren, ez dira asko saltzen eta horregatik kanpotik ekartzea erabaki dute. Goxo Tokiri, berriz,

Gipuzkoa mailan duten kooperatiba batek egiten dizkio izozkiak. Bertako langileak Juli Bastarririk adierazi digunez, *"Jendeari gehien gustatzen zaion izozkia bainilazkoa da, nahiz eta gazteen artean yogourth edo txokolatzekoak nahiago dituzten. Nagusiek gusto klasikoagoak dituzte"*. Mujika gozotegiko Irene Odriozolak izozkia nola egiten den kontatu digu: *"30 urte inguru daramagu izozkia egiten eta beti*

*formula berbera mantendu dugu. Osagaiei dagokienez nata eta merengea erabiltzen dugu, bestela nata gogorregia geratzen da. Nahastu ondoren izozkailuan sartzen dugu. Azken urteetan fresa eta trufa ere erabiltzen dugu, baina horiek azeptazio gutxiago dute"*. Kontsumitzaileen artean Mujika gozotegian adin ezberdineko bezeroak dituzte, eta kanpotik asko joaten dira izozkia erostera.




# Izozkiak gustoko dituzu? Ze eratakoak?




**Mari Carmen Salas**  
24 urte, langilea

Bai oso gustoko ditut, batez ere kukurutxoak eta korteak. Magnuma ere asko gustatzen zait.



**Eusebio Poza**  
67 urte, jubilatua

Ez, ez, horrelakorik ez. Kalte egiten dit eta nahiago dut beste postreren bat jan...



**Nere Amaia Cerdeira**  
24 urte, langilea

Bai, asko gainera, udan batez ere, neguan eskozesak bakarrik. Limoizko kukurutxoak eta Magnum zuria gustatzen zaizkit.




**Jose Mari García**  
28 urte, langilea

Gustatzen zaizkit, limoizko kukurutxoak batez ere, baina eztarrirako kaltegarriak dira eta ez ditut asko jaten.



**Sonia Rodríguez**  
26 urte, langilea

Bai, txokolatedunak batez ere. Udan kukurutxo asko jaten ditut, poloak ez zaizkit hainbeste gustatzen.



**Jon Arrieta**  
17 urte, ikaslea

Bai, esnez egindakoak batez ere, kukurutxoak..., izotzez egindakoak ez. Nata eta bainilazkoak oso onak dira.

**Cristina**  
Arruriaga z/g ☎ 76 03 04

**LEVI'S**

**Denda baimendua**  
**Talla solteak**  
**4.900 pza.tik**  
**aurrera**

**Siaska**

**Dena zure haurrarentzako**  
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

**AKORT** San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

**FS** oto istema **APBéniz**

**ARGAZKIAK ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50





## UEU

Aurtengoan UEU (Udako Euskal Unibertsitatea)ren XXII. edizioari ekin zaio. Batzuk, nahiz eta UEU izen bezala buruan izan, ez duzue zertan oinarritzen den jakingo agian. Saiatuko naiz bada, lerro pare batez UEUren helburua zein den azaltzen: Euskal Unibertsitatearen aintzindari izatea. Hau da, gaur egun, udako unibertsitatea bada, Euskal Unibertsitatea izan dadin, urte osokoa esan nahi dut, lortzen saiatu.

Eta bere filosofiaren aurkezpena egin ondoren, hamabost egun irauten dituen udako unibertsitate honetan egin ahal daitezken aipatuko dizkizuet. 28 ikastaro ezberdin dira orotara, bai letra bai zientzia eta teknika inguruko arloak jorratuz. Norbaitek agian pentsa dezake urte osoan klasean egon ondoren orain uztailean ere klaseak jasotzea astuna izan daitekeela, baina ikastaro hauetan ematen diren gaiak karreran zehar ikasten ez direnak dira, osagarriak baizik, eta neure ustetan behintzat interesgarriak.

Bergaratik zazpi izan gara aurten UEUri bisita egin diogunak. Ea datorren urtean 17 garen.

**Monika BELASTEGI**



## Denporia galtzia

Oñddio badare gauza batzuk iñok nahi ez ditxuanak baña hor segitzen dabenak. Hortaiko bat soldauzkia da.

Mutilla baldin baza eta hemezortzi urte beteta bauzkozu, jokuan sartzen za. Jokuak bi arpegi dauzka. Lelengua samurra da, diarra segitza besteik ez da; eta hau hiru modutan ein laike. Bat, soldaduzkara juanda. Bi, objetore sartuz. Hiru, psikiatra batekin (diru truke) libratzen ahaleginduaz. Beste arpegixan ostera (danok ontzat daukoun arpegixan) zigorrak dare, kartzelia.

Panorama hau topatzen dau mutillak lenau ero geruau eta zela urten erabagitzeko orduan, trabia besteik ez dau topatzen. Estatuak bere aldetik ahal daben guztia eitten dau soldauzkia ein deizun, eta ez jutia erabagi ezkeru, denpora mordua pasau biozu zaiñ. Honek gañera beste problema bat dakar, soldauzkia eiñ barik baukozu, lana topatzeko nekezau. Porlotanto, denporiakin jokutzen da.

Baña ez denporiakin bakarrik, objetore ein ezkeru, beste pertsona bati lan bat kentziaz aparte, ez dozu ezebe eitten (nik hau eitten dihardut, eta oñddio ez dot ezebe ikesi). Lehen esan doten moduan urtenbide hau be samurra da, papel bat bete eta itxoin: bi, hiru, lau urte. Gero hamahiru hillabete, berau betetzen pasau eta listo, eindda (honekin ez dot Cruz Rojia ero inguruko beste erozeiñ erakunde kritikau nahi, eren lana ona baño hobia dela pentsatzen jat, baña ez objetoriekin betetzeko modukua).

Badakitx ezebe berririk ez dotela esan, baña bai ostera egixa, eta noizian behiñ akordatzia ona dana.

Hontaiko zeoze eitteko ordua aillegau bajatzu eta ze ein ez baldin badakizu, aukerak ondo ikusi, ondo pentsau, ein gehixen komeni jatzuna, danon aukerak ez die bardinak eta. Baña, aupa INSUMISIÑUA!

**Felipe IÑARRA**

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

**PHILIPS**



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

## dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,  
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

**SONY**

TB, BIDEOAK, KAMARAK,  
HI-FI EKIPOAK,  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96





MIKEL

Horra hor bergarar taldea Tourmaleteko maldetan.

**Le Tour c'est le Tour**

Lagunengandik eta prentsaren bitartez jakin izan dugunez, bergarar pilo bat izan zen aurreko astean **Tourreko Pirinioetako etapak** jarraitzen. Telebistatik ere, **Tourmalet** eta inguruko mendietako maldak ikurriñez josita ikus zitezkeen eta hor zeuden nonbait gure txirrinruzaleak, **Indurain** eta barrei animoak emanez eta munduko karrera ezagunarekin gozatuz. Adibide gisa, igandeko **El Diario Vasco**

egunkarian, goian ikus dezakezuen bergarar koadrila agertu zen, pankarta eta guzti, bertan **"Aupa Olano, Anoeta, Bergara"** irakur daitekeelarik. Itxuraz behintzat, baten batzuk ez dira orainartekoarekin konformatu eta orain Alpeetako etapak jarraitzen ari dira... Pariseraingo helduko ote?

**Bola va!**


**Valen Moñux** bergararra ETB-2ko **"Bola va!"** saioan ikusi ahal izan genuen astelehenean. Valen finalera iritsi arren, berak aukeratutako gaian ez zen uste bezain ondo ibili: **Giuseppe Verdiren** inguruan 5 galdera egin zizkioten eta bi besterik ez zituen asmatu. Hala ere, Valenek umore ona azaldu eta telebistako esperientzia berri hau (aurreko batetan TVE-1eko **"Juego de niños"** saioan izan zen) positibotzat jo zuen. Valenek 50.000 pta. poltsikoratu zituen. Valenez gain, **Gotzon Arzelus** bergararra eta **Jaione Telleria** antzuolarra ere izan dira egun hauetan ETB-2ko **"Bola va"** saioan.



Valenek kamara aurrean ondo baino hobeto moldatzen dela erakutsi zuen.

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**  
Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA  
CAUDAL

ZURICH  
  
UNIBER  
HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

**KALEGOI, 19** ☎ 76 64 07

**Tomas Gezalaga**  
ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadako pinturak •
- Papel margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •





### Marinoren ondorengoak

Tourrak bergarar txirringuzaleen artean sekulako ikusmina sortu badu ere, **Santa Marinako** jaietan, igandean, antolatutako txirringulari lasterketa herrikoia ez zen atzean geratu. Haur, gazte eta nagusiek bizikleta hartu eta *marinorenak* egietari ekin zioten. Hori bai, konpetizioa baztertuz, umorea izan zen nagusi eta baten batzuk, karnabalak bailiran, dotore mozorrotuta agertu ziren irteeran. Antolaketak ez du erretiratutakoen berririk eman nahi izan...

### Bisitariak

#### Udalekuetako

#### haurrak

bisitari izan ditugu aste honetan


#### Berrigarar.

Begiraleen laguntzaz, neska-mutilek gure aldizkaria nola egiten



den jakin nahi izan dute eta baten batzuk bere kazetari zaletasuna azaldu dute ordenadore-pantaila aurrean. Lekzioa ondo baino hobeto jakinda joan omen ziren Berrigaratik eta ziur egon laister aldizkari bat ateratzeko gertu izango direla...

## Zertan dibardute ba?



**Joseba Oregi** 24 urteko pelotari bergararrak profesioaletan debutako du bihar Mutrikun. Joseba, Empresas Unidas jokatzeko ari den Aitorren anaia, Jolas Nai enpresarekin hasiko da jokatzeko. Biharko partiduan, arratsaldeko 16.30etan, Oregi eta Zubizarretak Orbea eta Goñiri aurre egingo diete. Josebaren hitzetan, *"jokatzeko hasi eta ea gauzak nola doazen ikustea nahi dut. Gainera abuztuaren geldia egotea ez zait komeni, partidua jokatu nahi dut"*. Joseba Oregi 11 urterekin hasi zen pelotan jokatzeko.

## BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

## Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...


Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



# Damaso Gallastegi

**18 urtekin Montblanc-era ("2 CV kotxe batetan") lehen bidaia egin zuenetik, Damaso Gallastegi 36 urteko irakasleak, Oceanian izan ezik, 250.000 Km. inguru egin ditu munduan zehar.**

- Bidaiatzeko, norbere kontura ala ajentziaren batekin?
- Norberak antolatuta; trajeekin bezala, norberan neurria.
- Bakarrik ala lagunduta?
- Batzutan lagunduta; bestetan hobe bakarrik joatea.
- Trena, autobusa, barkua ala abioia?
- Oroitzapen "entrañable"enak trena (Transiberianoan, Indian...) eta barkuarenak (Amazonas, Cabo de Hornos,...) ditut.
- Barnekaldea ala itsasaldea?
- Biak gustoko.
- Lo egiteko sakua ala ohea?
- Oherik ez dagoenean sakua.
- Kanpina ala hotela?
- Kanpin txikiak, domestikoak.
- Dirua txeketan ala monetan?
- Cash, tokian tokiko dirua.
- Bidaiatzeko hiru gauza?
- Motxila, mapa eta dirua.



*"Hobe da bidaia bat norberak antolatzea; trena eta barkuko oroitzapen onak dauzkat eta motxila, mapa eta dirua beharrezkoak dira. Coloradoko Kainoia zoragarria da. Anekdotarik? Emaztea Indian ezagutu nuen"*

- Ikusitako lekurik zoragarriena?
- Coloradoko Kainoia (oinez jeitsi nuen).
- Jenderik jatorrena?
- Altiplanoko indijenak eta Patagoniako gauchoak.
- Eta desatseginena?
- Iparamerikarrak, yankiak.
- Lagun asko egin dituzu?
- Asko baino, gutxi eta onak.
- Diariorik idatzi izan duzu?
- Bai, ohitura daukat.
- Eta nori irakurtzen uzten?
- Intimoa da.
- Postalak ala telefono deiak?
- Postalak bidali eta ahal denean telefonoz deitu.
- Jandako janaririk exotikoena?
- Kokodriloa Thailandian eta tximinu haragia Kilimanjaron.
- Bidaia desepzionaririk?
- Indonesiarekin beharbada.
- Eta zein bidaia egin nahi?
- Australiara.
- Mendi bat?
- Alpamayo (Andesetan).
- Bidaia liburu bat?
- Julio Villarren "¡Eh, petrel".
- Anekdotak bat?
- Emaztea Aretxabaletakoa da, batera ikasitakoak ginen eta India iparraldean ezagutu nuen.
- Aurten nora?
- Hilabeteko alaba daukagunez, bertan.

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

**Iturkintz Berri**

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**INSTALAZIOAK:**

**Iturkintza  
Berogintza  
Gasa**

☎ 76 28 04

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

**"Erratzu"**

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Taberna Kafetegia

**EHIZTARIAK**

**LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA






**umelaga**

**JATETXEA**


**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**IÑAKI EGUREN**

Azken Galde Debalden **Mairuaren Agerraldia** Antzuolan orain dela urte batzuk zein egunetan egiten zen galdetu genizuen. Erantzuna: **abuztuaren 26an.**

**IÑAKI EGUREN**ek jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **ARGAZKIk** emandako saria.

Zorionak **IÑAKI EGUREN**ei eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengoan suerte hobea duzuen.

# SANTOS

## IRRATI-TB

**SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA**

**Koloretako TB, bideoa, soinua,  
elektragailuak, antenak, sukaldeak  
altzariak, argiztapenak...**

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10

**Zubikua**

## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16





IÑAKI EGURENek jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.



**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16

Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Pasa den uztailaren 2an hil zen Mendozan (Argentina) Justo Garate bergarar jakintsua. Urte askotan Bergararik eta Euskal Herritik kanpo bizi arren, bere bihotzean eraman ohi zuen bere bizitza osoan Bergara, bere jaioterria. Justo oso ezaguna zen Euskal Herrian, euskal kulturaren arloan, medikuntzan eta beste zenbait arlotan egin zuen lanagatik. Liburu ugari idatzi zituen eta plazaratu zuen azkena, Bergarako Udalak argitaratu zuen. Horra, bada, aste honetako galdera.

**Zein da, orain dela hilabete batzuk Bergarako Udalak argitaratu zuen Justo Garateren liburuaren izena?**



\_\_\_\_\_

izena

\_\_\_\_\_

abizena

\_\_\_\_\_

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



David Carretero eta Josune Bereziartu dira Euskadiko kirol eskalada txapel-dunak. Larunbatean Bergaran jokatu azken proban, David Carretero, Iñaki Marco eta Gotzon Gardeazabal izan ziren onenak gizonezkoen artean. Emakumezkoen artean, berriz, Josune Bereziartu eta Beatriz Jimenezek berdinduta amaitu zuten eta hauen atzetik Leire Agirre sailkatu zen. Jokatu diren hiru probetako sailkapenak kontutan hartuz, Carretero eta Bereziartu izan dira onenak.



Iturrino, Karpin, Aranzabal, De Pedro eta Idiakez asteazkeneko aurkezpenean.

ANDONI CANELLADA

**PELOTA**

Gaur, ostirala, arratsaldeko 7.15etatik aurrera Osintxuko Beteranoen Pelota Txapelketako finalak jokatu dira Osintxun. Azkoitia eta Osa oñatiarrek Berasa eta Gabilondo elgoibartarren kontra jokatu dute finala. Ondoren, Elosuko Muguruza anaiak, Angiozarko Aldai anaien kontra 3. posturako jokatu dute.

**TXIRRINDULARITZA**

Bihar, larunbata, arratsaldeko 3.30etan hasita gazte mailako III. Santa Marina txirrindularitza lasterketa jokatu da. Arratsaldeko 6ak inguruan helduko da irabazlea Matxiategiko helmugara.

**Agustin Aranzabal: "Ekipoan konfiantza haundia duela esan digu Toshackek"**

*Bergararra, 93-94ko Realaren "fitxaketan" artean*

Agustin Aranzabal, 21 urteko futbolari bergararra, Realak asteazkenean Anoetan egin zuen aurkezpen ekitaldian izan zen. 93-94 denboraldirako talde txuri-urdinaren aurpegi berrietako bat izango da Gazteluren semea. Karpin, Iturrino, De Pedro eta Idiakez dira Realak aurrean egin dituen gainontzeko fitxaketak.

BERRIGARAK Agustinekin berriketan egiteko aukera izan du. Asteazkenean ezkerotik Donostian dago, egunero goiz eta arratsaldean entrena-

tzen baitu Zubietan bere taldekideekin batera.

"Ekipoan esperantza haundiak jarri dituela esan zigun entrenatzaileak asteazkenean. Argazkiak atera ondoren. Anoetako zelaian korriketalditxo batzuk egin genituen eta jarraian, meza entzun eta gero bazkaltzera joan ginen Realeko eta Sanseko jokalari guztiak", adierazi digu bergararrak.

Agustinen helburua talde nagusiarekin gero eta partidu gehiago jokatzea da, "pixkanaka-pix-

kanaka hamaikakoan sartzea gustatuko litzaidake. Zaila izango da baina saiatuko naiz. Abuztuaren 5ean Britainia Haundira joango gara eta entrenatzailearen konbokatortarian izatea espero dut".

Aldageletako giroaz galdetu diogunean zera esan digu: "basieran errespeto eta lotsa pixkatekin sartzen zara baina taldekideek asko laguntzen digute gazteei, batez ere Biurrun eta Lumbrerasek, oso jatorrak dira eta".

**UZTAILAREN 28tik AURRERA BERRIRO ZABALIK**

**ORTZI ERRETEGIA**

☎ 76 22 68  
**ANGIOZAR**



# INGURUKO MENDIETAN

## astebukaerarako aukerak

# Otzaurte-San Adrian-Aratz

**Z**egama gainean dagoen **Otzaurteko mendigai**-na Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugaren ondoan dago. **Zegamatik** hurbiltzea baino **Etzegarateko** gainetik hurbiltzea gomendatzen da. Horretarako **Beasaindik Altsasurako** bidean **Etzegarate** gaina igaro eta hiruzpalau kilometrotara eskumatera dagoen bidekurutze bat hartu eta beste hiru kilometrotan **Otzaurteko bentaraino** helduko gara.

Irtenaldia luzatzea nahi bada kotxea bertan aparkatu daiteke baina bestela kotxez jarraitzeko aukera dago ezkerretan dagoen pistatik gora. Inongo bidekurutzerik hartu gabe eta 4 kilometro inguru egin ondoren eskuma aldean ikusiko dugun bigarren bidekurutzearen alboan dagoen aparkaleku txiki batean kotxea uzteko momentua heldu zaigu. Bazen ordua.

Oinez hasteko ordua da. Bidekurutze hori hartu eta 25 metrotara burdinezko zubi antzeko zerbait igaroko dugu berehala aldapa gogor bati ekiteko. Bide hau jarraituz Mendi Federakuntzaren aterpera helduko gara ia konturatu gabe. Bertatik **Aizkorri** eta **Aratzeko** mendilerroen elkargunean dagoen haitzuloa ikus daiteke, **San Adriango** haitzuloa hain zuzen ere. Geldiunerik egin gabe haruntz abiatuko gara.

**Araba** aldera dagoen erromatar bidea nabaritzen hasiko zaigu haitzulora heldu baino pixkat lehenago. Haitzuloaren freskotasunaz gozatu ondoren eta erromatar bidetik jarraituz bizpahiru mitunutara itu-

**Araba aldera doan erromatar bidea nabaritzen hasiko zaigu haitzulora heldu baino pixkat lehenago.**

**Haitzuloaren freskotasunaz**

**gozatuko dugu.**

rri bat dugu ezker aldean. Iturri hau aurkitzea ez da hain erraza, bidetik 25 metrotara dagoelako eta hostoz estalirik egoten delako. Han indarrak berrizteko aukera izango dugu lehen aldapei ekin baino lehenago.

Iturrian bertan erromatar bidea alde batera utzi eta pagadian barrena **Aratzeko** bideari ekingo diogu. Nahiko ondo markaturik dagoen bidea denez, ez duzue inongo arazorik ordubete inguru ibili ondoren **Aratz punta** zapaltzeko.

Paisaiatz gozatu eta hamarretakoa (edo hamabitakoa) egin eta gero itzultzeko ordua iritsi da. Leku berberetik jeitsi nahi ez baduzue barkatu baina guk ez dugu bide egokiagorik ezagutzen.

**POL-POL Mendizale Taldea**



San Adriango kobazulotik irtetzen.



**KOMENTARIOA**



**Andoni  
OLABARRIA**

"Lerro hauen bitartez, Bergarako Olinpiada Batzordearen izenean, Herri Olinpiadetan parte hartu duten kuadrila guztiak eskertu nahi ditut.

Aurreko edizioetan Olinpiadak herrian izan duen onarpena ikusi eta gero, datorren urtean denon laguntza izatea espero dugu, baita parte hartu duten kuadrilena ere. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu halaber, Talleres Ola, Etxeberria erloju denda, Central Hispano, Arrano, Etxagi eta Pol-Pol tabernei; Bergarako Udala, Akort, Kutxa, Lankide Aurrezkia, Aranzadi Ikastola, Bergara Kirol Elkarte eta Berrigara astekariari.

Amaitzeko bihar larunbata, arratsaldeko 3retan San Martin plazan egingo den bazkarira herri guztia gonbidatu nahi dugu".

# **HERRI OLINPIADAK**



Asteartean jokaturako Eskoba-Hockey partidu bat.

**SAILKAPENA**

1. Xurruapak ..... 625
2. Diskrepo Peñi .... 615
3. Zoropotrondoak . 550
4. Shaktale ..... 430
5. Altos Pornos ..... 415
6. Mongatxurrak .... 395
7. In The Garden ..... 300
8. Knickers Down .... 295
9. Zoko Toko ..... 285
10. The Avelinos ..... 250
11. Txaharrenak ..... 195
12. P. Ta Zapaburuak . 170
13. Ganba Txunga ..... 130
14. Txe Bergara ..... 70

## **Bukatu da, akabo...**

*Finalak eta amaiera festa, zapatuan San Martin plazan*

- |   |   |
|---|---|
| <b>11.30:</b> Etxaflero jaurtiketa.         | <b>13.00:</b> Herri poteoa trikitilariak alaiturik. |
| <b>11.35:</b> Herri Kirolen finalak plazan: | <b>15.00:</b> Herri bazkaria plazan.                |
| • Sokatira:                                 | <b>17.00:</b> Jaialdia:                             |
| XURRUPAK-ZOROPOTRONDOAK.                    | • Bertso txapelketa                                 |
| • Zaku karrera:                             | • Txiste lehiaketa.                                 |
| SHAKTALE-THE AVELINOS.                      | • Play-back saioa.                                  |
| • Kaskara jokua:                            | • Jolasak.  |
| XURRUPAK-IN THE GARDEN.                     | • Sari banaketa.                                    |
| • Aritoa:                                   | Amaitzeko, plaza garbituko da eta                   |
| XURRUPAK-ZOROPOTRONDOAK.                    | ondoren, bildutakoen artean herri                   |
| Bukaeran, herri jokuak izango dira.         | poteoa egingo da.                                   |



Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**ZAPELAITZ**  
**Taberna**

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera  
San Lorentzo 25, BERGARA





## Institutoko kirol txapelketak

**H**ona, pasa berri den Futboleko mundialean ikusi ahal izan direnen pareko irudiak, nahiz eta kasu honetan saskibaloia izan. Goian irribarrea eta txantxa. Jakina, arbitroak ez du zer galdurik... normalean. Eta partidua hasi aurretiko argazkia da.

Behean, berriz, jendea lur jota. Ez zen mundiala baina ez zuten halakorik espero... faborito izan eta galdu.

Goiko argazkian, ezkerretik eskumara: Pako Osuna, Agustin Larrañaga, Patxi Palomares, Asier Linazisoro eta Iñaki Legorburu.

Behekoan: Juanjo Basterra, Andoni Larrañaga, Ugarte, Ion Arrieta eta Alex Familiar.

*Argazkiak:  
Imanol Iriagarai*



HARATEGIA - URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta  
oilazkoak**

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA

**LETE**

**TOLDOAK**

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24  
☎ 76 23 83 ARRASATE

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

**Garajea** salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

**Pisua** salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

**Pisua** alokatzen da Ba-rrenkalen. ☎ 76 44 34.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Garajea** hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua aloka-tzen da.** ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Oporrak** Zarautzeko etxe batetan igarotzeko au-kerak. ☎ 13 28 49.

**Pisua salgai** Martokon. ☎ 76 14 60.

**Pisua salgai** Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

**Pisua salgai** Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

**Pisua** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87 (eguerdian eta gauetz)

**Pisua** alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** alokatzen da Ja-can. ☎ 76 43 98.

**Garajea salgai** Kruz Gal-lastegin. ☎ 76 48 36.

**DENETARIK**

**Bergaran pisua** konpar-titzeko neska bat behar da. ☎ 76 30 09 (Araceli).

**Opel Kadett** 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

**Kanpin denda** haundia (8 pertsona) salgai. ☎ 76 26 73.

**Ume kotxea** salgai (altua eta osorik). ☎ 76 57 74.

**Erleak** saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

**Bilbon** (Autonomia kale-an) pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 14 31.

Korredore **bizikleta** sal-gai. ☎ 76 54 24.

**ESP Horizon** bajoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Ikasten ari garen 3 neska **pisua alokatuko** genuke (zentrikoa eta ekonomi-koa). ☎ 64 44 19.

**Neska bat** behar da abuz-tuaren 8tik 31ra etxea eta bi haur zaintzeko. ☎ 76 57 32 (gauetz).

**Algortan** pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 41 59 (Amagoia).

**BMW** motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

**Etxeko konponketak** egi-ten dira prezio onean. ☎ 76 30 10 (Javi Alonso).

**Donostian** (Grosen) pisu-a konpartitzeko bi neska behar dira. ☎ 76 30 00.

**Renault 5 GTL** SS-O ko-txea salgai. ☎ 76 30 10.

**Vespa 200 TX** beltza sal-gai. ☎ 76 53 12.

**LANA**

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

**OHO, BBB** eta **LH** klase-ak. ☎ 76 06 50 (Josean).

**OHO** eta **BBB** klaseak. ☎ 76 24 31 .

**Frantses** klaseak ematen ditut. ☎ 76 32 70 (Dorleta, 12-13.30 eta 21-22.00).

**Ingeles klaseak** ematen di-tut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**OHO** eta **ingeles** klase-ak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Matematika**, fisika, kimi-ka klaseak. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filologia**n lizentzia-tuak, ingeles klaseak eman-go lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Euskarazko** klaseak. ☎ 76 10 14 (Fermin).

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Matematika** eta **kontabi-litate** (2. Enpresaritza) klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 21 28.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**Hildakoak**

- Francisco Basail Zarraga* uzt. 13, 59 urte
- Carmen Odriozola Unzueta* uzt.13, 86
- Ana García Sánchez* uzt.15, 81
- Teodoro Gallastegi Lamariano* uzt.15, 86
- Tecla Agirrezabal Maiztegi* uzt.15, 88
- Emilio Larrañaga Laskurain* uzt.16, 80

**Jaiotakoak**

*Josu Azkarate Barruso*  
uztailak 12

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**SURPE**

**Taberna**


Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

**ZUBIETA**

**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 beheak  
☎ 76 23 48





# BERGARAKO OSASUN Gida

## ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ..... ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala). Telefono mobila. .... ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde, 28. .... ☎ 76 27 97

## ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. .... ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. .... ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

## HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. (Lehen Notaria zegoen tokian). .... ☎ 76 05 77

## MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. .... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. .... ☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. .... ☎ 76 37 50

## PEDAGOGOA:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. .... ☎ 76 26 42

## PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .... ☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. .... ☎ 76 26 64

## PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 53 13